

Aitor eta Edurne bakarrik gelditu direnez etxean izugarrizko merienda prestatu dute. Hau dena jan dute: ogi xigortua gaztarekin, marrubizko yogurta eta bukatzeko txokolatezko gailetak, mandarina batzuk jan ondoren.

Ama etxeratu denean jandako guztia kontatu diote eta ez zaio batere gustatu.

Gaur ez dute afaldu, ez zuten ezertarako gogorik eduki.

• **Zein ordenean jan dituzten meriendako gauzak?**

- A. Ogi xigortua – yogurta – gailetak – mandarinak.
- B. Ogi xigortua – yogurta – mandarinak – gailetak
- C. Ogi xigortua – gazta – yogurta – marrubiak
- D. Ogi xigortua – mandarinak – yogurta – gailetak
- E. Ogi xigortua – gailetak – mandarinak – yogurta

• **Zergatik ez dute afaldu gaur?**

- A. Goserik gabe zeudelako.
- B. Afaririk ez zegoelako.
- C. Meriendarik ez zutelako.
- D. Ama ez zegoelako.
- E. Amak zigortu dituelako.

• **Zure ustez, ona al da osasunerako hainbeste jatea?**

- A. Bai, hazten ari naizelako.
- B. Bai, gailetak gustatzen zaizkit eta.
- C. Ez, berez ez dudalako meriendatu behar.
- D. Ez, ez zaidalako gustatzen yogurta.
- E. Ez, ondoren tripako minez egon naitekelako.

• **Zergatik uste duzu amari ez zaiola gustatu kontatu diotena?**

- A. Txokolate gehiegi jan dutelako.
- B. Amak bakarrik aurkitu dituelako.
- C. Gehiegi jan dutelako.
- D. Afaldu ez dutelako.
- E. Meriendatu dutelako